



347

ARIGUNE



BELARRIPREST ETA AHOBIZIENDA KO

Azaroaren 19ra arte eman daiteke izena www.euskaraldia.eus webgunean / 9



Arrietaren jokaldia

Movistar taldeak goitik behera kontrolatu zuen Sakanatik pasa zen Vueltako etapa / 12

Zaldi aziendaren egoera ezagutu dugu Zuhatzuko eta Arbizuko ekoizle banaren eskutik / 6-7

Josu Etxeberria txirrindulari iturmendiarra profesionaletan ariko da 2021ean / 13

Lakuntzako Udalak 20 baratze ekologiko sortuko ditu herritarrek erabil ditzaten / 8

Mari Romero idazleak errefuxiatuen inguruko eleberria kaleratu du / 15



ATOPIA RPG rol jokoaren logoa . ATOPIARPG

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Lastailaren erdialdean, duela bi urte, Etzi Portu Maritimoa taldea elkartu eta "harri bat ibilian jarri" zuen: ATOPIA RPG (Roll Playing Game). Haien egitasmoa euskaraz sortutako rol joko sortzea zen eta proiektua Durangoko Azokaren Sormen Beka deialdira aurkeztu zuten. Azokak halako deialdi bat egiten zuen estreinako aldia zen, eta Etzi Portu Maritimoa taldeak eskuratu zuen. 2018an jaso zuten beka eta urte bat geroago, 2019an, Durangoko Azokan aurkeztu zuten ATOPIA RPG.

Rol jokoaren sortzaileen taldean dago Galder Gonzalez Larrañaga. Rol jokoak Durangoko azokan "harrera nahikoa ona" izan zuela azaldu du. "666 ale atera genituen eta, egia esan, salmenta nahiko ongi joan zen. Uste dut dirurik ez dugula galdu. Eta hori garrantzitsua da. Beka eman zigutenean egin genuen lehenengo gauza Twitter kontua sortzea izan zen (@ATOPIARPG). Eta, egia esan, hor bizitza handia dago. Jarraitzen dugu tontakeriak esaten, parte hartzen eta abar".

Rol jokoak www.atopia.eus web orria du eta haren bidez eros

Unibertso baterako atea

Durangoko Azokaren estreinako Sormen Bekaren fruitu izan zen ATOPIA RPG rol joko, euskarazko aurrenekoa. Joan zen urtean aurkeztu zuten azokan. Sortzaileen artean altsasuar bat dago eta hark eman ditu rol jokoari buruzko azalpenak

daiteke oinarri den liburua. Webgunearen bidez izena eman eta jolasteko aukera ere badago. Konfinamendua dela eta Etzi Portu Maritimokoek liburuaren PDF artxiboa liberatu zuten, jendeak irakur eta joka zezan.

Zer da roll joko bat?

Gonzalezek lehenik eta behin argi utzi nahi izan digu: "ez da 3Dko grafiko ikusgarriak dituen bideo joko bat. Ez da tablero baten gainean jokatzen den mahai-jolasa. Kolaborazio historia bat da". Eta adibidea eman du: "ida-

tzi gabea den antzezlan batean pentsasu eta jokalarri guztien artean garatzen joan behar dutena. Normalean, zuzendari bat dago, master deitzen dena. Guk maizter jarri dugu".

Antezlanean zuzendaria, masterra, da historiaren nondik norakoa dakiena. "Baina jokalarriak hori aldatzen joan daitezke. Eta beraien erabakiekin gauza desberdinak egin ditzakete. Normalean, masterraren lana da pixka bat bideratzea, baina jokalariek beste gauza bat nahi badute, bada, beste bat".

Gonzalezek gaineratu duenez, "funtsean bat-batekotasunean oinarrituta jokatzen da. Bakoi-tzak pertsonaia bat jokatzen du. Pertsonaia horrek ezaugarri batzuk ditu eta horien arabera, eta dadoen bidez, erabakitzen da egin nahi dituen gauzak egingarriak diren edo ez. Oso erraza den zerbait egin behar baduzu, normalki, ez duzu datorik behar. Baina oso zaila den zerbait nahi baduzu, masterrak dado jaurtiketa eska dezake. Horren arabera erabakiko da egiten duzun edo ez". Etzi Portu Mari-

timoa taldeko kideek azaldutako rol jokoaren oinarria da, "baina mota askotako rol jokoak daude".

ATOPIA RPG

Euskarazko rol jokoaren abiapuntua gaur egungo Euskal Herria da. "Azpian dagoen hipotesia da bost fakzio existitzen direla. Fakzio bakoitzak bere interesak ditu eta haien arteko borroka betiereko bat dago. Fakzio horien interesen arabera gertatzen dira gauzak". Irudikatutako fakzioen artean, alde batetik, Sistema (STMA) dago: "ordenaren zain-tzailea, edo gauzak horrela dira eta ongi daude dauden bezala. Beraien kontra egonen litzateke Internazional Ikusezina; kaosaren maitaleak eta sistemaren kontrakoak, oro har".

Aipatutakoez aparte, Marxialistak fakzioa dago: "marxistak eta arte martzialetan adituak. Ikusten dutenaren arabera izan daitezke Sistema edo Ikusezinak, egin nahi dutenaren arabera. Horien antitesia litzateke Lur4a; konspiranoikoak eta dena hankaz gora jarri nahi duten inongo intuiziorik gabe. Eta beti dakite, azkenean, gauza sekretuak dau-



EGOKI
Ventanas PVC Leihokak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





ATOPIA RPG rol jokoaren sortzaileak duela bi urte. Laukidun jertsearekin, eskubialdean, Galder Gonzalez sakandarra. ATOPIARPG

dela, eta horiek aurkitzeko joera daukate". Bosgarren fakzioa Agentzia da, "kazetariak, hackerrak eta abar dira. Informazioaren trapitxeroak deitzen ditugu. Informazioa saldu eta erosi dezake, eta modu askotan joka dezake, fakzio bat lagunduz, edo kontrako informazioa salduz, edo dena delakoa". Sortzaileak laburbildu duenez, "horien arteko tirabirek osatzen dute jokoa. Azkenean, aitzakia bat dira mundu bat planteatzeko".

Jokatzera

Jokaldirako elementuak eman dizkigu Gonzalezek: "Altsasun gaude, fakzio bakoitzeko jokalaria bat dugu. Dokumentu zahar bat opatu dute esaten duena San Pedroko baseliza, benetan, Iturmendirena dela. Eta esaten dute: 'hau ezin da kaleratu'. Baina Agentziak filtratu du. Jokalariak abentura bat hasi dute, esaterako, hori sekula publikatu ez dadin GUAIXEN". Argitalpen hori eragozteko astekariko ordenagailuak hackeatzea erabakiko balute, jokoko pertsonaien artean "ordenagailuak hackeatzeko gaitasuna" duen bakarren bat egon beharko luke.

Ordenagailuen pasahitzaren arabera lan erraza edo korapilatsua izan daiteke eta "horren arabera maizterrak erabaki dezake zenbat dado bota behar dituen eta zein emaitza lortu behar duen". Gonzalezek azaldu duenez, "jokatzeko sistema pokerraren antzekoa da: pareak, hirukoteak eta hala-

koak. Esaterako, atea itxita dago. Atea irekitzen saiatu beharrean (erraza) nik esaten badut pareta gurutzatuko dudala (zaila), da-dotan oso-oso emaitza onak lortu behar nituzke hori egiteko, nekez gerta daitekeelako". Maizterra "abentura gidatzen saiatzen da, berak baitaki zein den 'egia', trama edo sinopsia".

ATOPIA RPG-n "guk abiapuntu bat idatzi dugu, agertoki batzuk eta akabera posible batzuk. Baina guk guztia ezin dugu aurreikusi". Eta lehengo adibidera bueltatuz: "demagun jokalariek erabakitzen dutela, ez dakit, ordenagailuak hackeatu beharrean kiosko guztiak erretzea. Noski, guk hori ezin dugu aurreikusi. Beraz, maizterra horren gainean egon behar du, kontakizun berri bat eraikitzen. Baina garrantzitsua da ere jokalariek kontakizunean laguntzea. Ez da jokalaria maizterren kontra. Guztiok batera da. Eta hori da daukan zailtasuna: guztion artean historia hori eraikitzea".

Normalki, fakzioek helburu desberdinak izan ditzakete. "Lehengo eszena-tokira bueltatuz, Agentziaren helburua izan daiteke publikatzea eta, demagun, Siste-

"GUZTIOK BATERA DA. HORI DA DAUKAN ZAILTASUNA: GUZTION ARTEAN HISTORIA HORI ERAIKITZEA"

marena ez publikatzearena dela, ordena mantentzearen alde. Jokalarien artean Agentziakoa den bat bera ez badago, helburua gelditzea izanen litzateke. Baina jokalariek esaten badute Internazional Iku-sezina eta Agentzia direla, orduan da saiatzea hura publikatzen, baina agian trabak dituzte".

Gaineratu duenez, "liburuan partida batzuk eginak edo sortuak eskaini ditugu: trama batzuekin, pertsonaia batzuekin, pertsonaia horien indarra zein den eta horrelako gauzekin. Baina horiek gida batzuk dira. Guri gustatuko litzaiguke jendeak nahi duen bezala jokatzeko. Eta beraien istorioak asmatu eta beraien arauak ezarri ere. Gaineratu duenez, "orokorrean, pare bat aldiz jokatzeko baduzu, badakizu zein den dinamika".

Liburua

ATOPIA RPG erosten duenak liburu bat eskuratuko du. "Hau berez, literatura lan bat da". Liburuak lehenik unibertsoa azaltzen du: nolakoa den, fakzioak, lanbide arketipo batzuk (polizia edo eskultorea bazara egiteko edo aukera hauek dituzu). "Oinarritzko mekanika bat dauka: nola ebatzi jokaldi bat, jazarpen bat badago arau batzuk... Mekanikan ez dugu gehiegi sakondu. Eta gero partidak ditu: azkarrak eta luzeagoak. 10-12 partida inguru daude. Eskaintza desberdinekin eta fakzio desberdinendako pentsatuak. Gehienak akziozkoak dira. Baina egon daitezke gauzak aurkitu edo jo-

kalariek dagoen misterioa argitu behar dutenak. Arrasto batzuk egon daitezke eta horietatik ondorio batera iritsi".

Sortzaileak azaldu duenez, "guk eskaintzen ditugun horiek nahikoa linealak izan daitezke. Hori aukera bat da. Jokalariak hortik badoaz, ongi. Badira beste batzuk abstraktuagoak direnak: eskema edo gertakari bat maizterri baimentzen diona horren barruan istorio bat sortzeko". Bestetik, malgutasunerako karta jokatzeko ere proposatu du. Esaterako, Bilbon gartzen den partida Iruñean kokatzea eta hiri bateko eraikinak besteakordekatzea. "Hori bakoitzak bere herrira molda dezake". Beraz, liburua oinarri, nork bere istorioak sor ditzake.

Baina ez dute dena egin eman nahi izan jokalariek sor dezaten. "Ez da nobela bat. Gainera, badu zati bat, ehun pasa eleberriren lehen esaldi modukoak biltzen dituen. Hau da, egoera posible bat, gero baimentzen dizuna partida bat garatzea. Esaldi bakar batean zerbait gertatzen da eta, nahi baduzu, horren inguruan partida garatu dezakezu".

Gonzalezek azaldu duenez, ATOPIA RPG "publiko orokorrari" zu-

"ESALDI BATEAN ZERBAIT GERTATZEN DA ETA, HORREN INGURUAN PARTIDA GARATU DEZAKEZU"

zenduta dago. "Denetarik izan dugu, jende oso nagusia eta oso gaztea. Egia da daukan unibertsoagatik, agian, gazteek hobeto bat egin dutela. Gaur egun nerabe direnetatik 30 urte pasa dutenera arte, lagunekin jolasteko. Baina hori baino nagusiagoak direnek kultur erreferentzia batzuk gehiago ulertuko dituzte". Izan ere, egile gehienak 30etik baino 40ko adin tartetik gertuago daude. "Maila desberdinetan goza daitezke: batzuk kultur erreferentziagatik, eta, besteak, roll joko lagunekin jokatzeko delako. Jokatu duen gazteena 13 urte izanen zituen eta oso ongi pasa zuen. Baina txisteetako batzuk ez zituen ulertu, bere belaunaldiari ihes egiten diote".

Bitartean Etzi Portu Maritimoa taldekoak beraien partida propioan ari dira: "irudikatzen dirua izanen bagenu zein proiektu eginen genituzke. ATOPIA RPG-ren bigarren parte bat edo zerbait. Zeren jokatzerakoan esaten duzu: honek ez du batere funtzionatzen, honek bai. Batzuek esaten dute: beste edizio bat beste ipuin batzuekin". Horretan dabilta.

Konfinamenduan ipuin lehia-keta egin zuten. "Badago partida bat Orionerako bidea deitzen dena eta Telegram bidez ez dakit zenbat jende jokatzeko ari dena. Horrelako gauzatxoak. Gustatzen zaigu esperimentatzea. Ez ditugu proiektu gehiago, egin ditzakegunak baino. Helburua da jendeak ongi pasatzea eta euskarazko zerbait sortzea".



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Txartel gorria

Aurreko egunean, Euskadi Irratiko goizeko saioan Arantxa Urretabizkaia idazlea oso kritikoa azaltzen zen Pandemiari buruz agintari politikoak oro har egiten ari diren kudeaketaren gainean. Laburbilduz, gizartearen infantilizazioa bultzatzen ari direla esaten zuen, hots, haurrak baikin jolasten dutela gurekin. Hori horrela dela baieztatzen aipatzen zuen agintariak arauak eta zigorrak erabakitzen dituztela, baina pedagogia gutxi egiten dutela, alegia, autoritatea (edo autoritarismoa) sustatuta, herritarrengan beldurra eta mesfidantza hedatzen dutela.

Egia da agintarien eginkizuna ez dela batere samurra; hala ere, haien egiteko erak akats franko dituelakoan nago. Zientzian oinarritutako erabakiak omen dira, horrekin dena esana balego bezala. Baina, ez dakigu epidemiologoez gain, psikologoez, soziologoez, ekonomialariek edo nork demontre gehiagok osatzen duten talde erabakitzaile hori. Beharbada, Gobernuak arlo ezberdinetako gizarte eragileekin afera landuko balu, hau da, enprekin, sindikatuekin, kultura eta kirol ordezkarietan, gazteekin, jubilatuekin eta abarrek, haien engaiamendua lortzeko, herritarrentzat sinesgarriagoa izanen litzateke.

NEURRIAK EZARTZEAZ GAIN, GARRANTZITSUA LITZATEKE HERRITARROK ERE HAIEKIN BAT EGITEA

Beharbada, tabernak eta jatetxeak bezala, aginduz kaltetzen diren jarduera ekonomikoendako konpentsazio argiak eta arinak xedatuko balira, ez litzateke erabaki arbitrarioak direlako susmorik hedatuko. Beharbada...

Orain, Nafarroa osoari ezarri zaio konfinamendu perimetrala eta tabernak eta jatetxeak itxita, kutsagune bakarrak bailiran, hamalau egunez. Hala ere, bizpahiru aste aurretik jakina zen Iruñerriko egoera kezkarria; baina, aitzakiaren aitzakiaz, Espainiako Vueltaren etapa pasatu arte itxaron da erabakiak hartzeko. Zientzian oinarrituta ote? Gainera, ez Iruñerria soilik, Nafarroa osoa baizik. Iruñazentrismo halakoa! Ez dakit, baina neurriak ezartzeaz gain, garrantzitsua litzateke herritarrok ere haiekin bat egitea, baina horretarako informazioa eta gardentasuna falta da. Hori horrela, nire aldetik txartel gorria Gobernuaren azkeneko erabaki horiei.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Gertatzen dena kontatzen diezu eta haiek langarrari begira

SAKANA TRENAREN ALDE, AHTRIK EZ PLATAFORMA

Arestian, Sustrai Erakuntza Fundazioa Nafarroako Parlamentuan egon da bertako alderdi politikoei Abiadura Handiko Trenak merkantziak eramateko dituen zailtasun handiak zeintzuk diren azalduz.

Abagunea aprobetxatu zuen Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentek (AIREF) azpiegitura honi buruz egin berri duen azterketa aipatzeko. Espainiar Estatuak sorturiko instituzio honen arabera, AHT ez da ez sozialki ez ekonomikoki errentagarria, eta horregatik, erreikusitako makina bat linea ez zen egin beharko.

Honela, Nafarroan eraikuntzaren lehen

hastapenetan dagoen azpiegitura baten aurrean gaude, eta azterketa horien arabera, ez zen eraiki beharko. Eta gainera, hainbat gobernuk azpiegitura hau egiteko darabilkiten argudio nagusienetako bat, merkantziak abiadura handian aterako dituela, ez dator bat errealitatearekin.

Burugabekeria honen aurrean, alderdi politikoez hausnartu beharko lukete azterketa horiek egokiak diren edota zerbakiak koadratzen ote duten. Eta egun horretan AHT defendatzen duten alderdien aldetik jaso genituen erantzunak, ordea, betikoak izan ziren, langarra nola erortzen den aditzen egonen balira bezala. Auzitan jarri genituen arloak ez zituzten aipatu nahi izan, gure

zalantzak erantzuteke utzi zituzten eta gaur egungo egoera sozio-ekonomikoa ez zuten aintzat hartu nahi izan.

Betiko argudioak erabili zituzten: AHTk Europarekin lotzen gaituela, Nafarroako merkantziak garraiatzeko balioko duela... Berdin zaie dagoeneko hainbat erakunde publikok zalantza jarri izana hau guziaz, berdin zaie José Luis Ábalos Garraio Ministroak AVen inbertitzen dena murriztu eta Aldiriko Trenetan gehiago inbertitu behar dela esan izana...

Guri dagokigunez, Plataformatik errealitateaz informetzen jarraituko dugu, eta ahal badugu, alderdi horiek errealitatea onartzen joan daitezela saiatuko gara, kosta ala kosta.



OBJEKTIBOTIK



Aitor Agirrezabal @aagirrezabal · 50 min

Orduko ia 200 kilometroko haize boladak izan dira gauean Aralarren

Data	Haize bolada azkarrenaren 10m	Haize bolada azkarrenaren abi.
	m/s	km/h
20/10/2020	55.2	198.8

Aralarren haize bolada azkarrenaren errekorra

Barbara zikloiarengatik izandako haizeteak errekor guztiak hautsi ditu, inoizko haize boladarik azkarrena

neurtu baita Aralarren dagoen meteorologia estazioan, ia 200 km/h-ko haize boladarekin. Gainera, Sakana guztian

sumatu da haizetea, eta arazo ugari izan dira, zuhaitz eroriak, farola ondatuak edo hegan egin duten teilatuak besteak beste.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Alzelai Iriarte

Kolaboratzailea:

Rebeka Mendoza

Lege gordailua:

NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

**HERRIAN
EROSI**

A

**DENDAK - ALTSASU - TRADIZIOA
KALITATEA - GERTUTASUNA**

MODA - OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK:
Asensio Moda, Calzados Bengoetxea, Ekin Moda, Iulene, Joselen,
Joss, Katuka, Larra Emakumea Gizona, Mari Carmen, Marigorri,
ML Moda Hombre, ML Moda Mujer, Pinpilinpauxa Moda Infantil,
Sare Oinetakoak, Tu tienda Especial, Txittxo

KIROLOAK:
Deportes Lezea
Iker Kiroiak
Lasa Kiroiak

BURUNDEGIAK:
Electricidad Ramos
Electrodomesticos Ramos
Gertu Sakana

OSASUNA:
Optika Sakana
TEKNOLOGIA:
Xagu Informatika

**PROFESIONALA - JASANGARRIA
KONFIANTZA - ESPERIENTZIA**

LIBURU-DENDAK:
Arkatz Liburudenda
Liburunda Papeleria
Txartel Kopla

LOREDENDAK:
13 Udaberri Loredenda
Lore eta belardenda Lorea

OSTALARITZA:
Akelita Kafetegia
Gautxori Taberna

HIGIEZINA:
Inmobiliaria Agurain

EUKADURA:
Cristina Janari denda
Carniceria Sorkunde

ETXEKO DENDAK:
Muebles Sta. Cruz
Cortinas Izara

ASEGURUAK:
Allianz Seguros
(Hnos. sayas)

25^{urte}
años

NADE

Altsasuko Dendarien Elkarteak
Asociación de Comerciantes de Altsasu

Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako jarduketa



Comercios
de Navarra
Nafarroako
dendak



Patxi Legarra abeltzain zuhatzuarra bere zaldiekin. JON

"Abeltzainok egin dugun lana gutxi baloratu da"

PATXI LEGARRA ABELTZAINA

Patxi Legarra zuhatzuarrak Aurizko arrazako zaldia hazten ditu; gaztelaraz Burguete bezala ezagunak, desagertzeko arriskuan dagoen arraza autoktono bat da

Jon Arakama Goikoetxea ZUHATZU
Nola hasi zinen zaldia hazten?

Nire aita abeltzaintzan eta nekazaritzan aritzen zen, eta gero nik hartu nuen erreleboa. Koinatuaren etabion artean daukagu esplotazioa.

Eta zaldiez aparte, behiak ere hazten dituzue.

Bai, esplotazio misto bat daukagu Zuhatzun. Hirurogei bat behi haragitarako eta berrogeita hamar bat behor, Auritz

arrazakoak; haragitarako horiek ere.

Auritz zaldi azienda desagertzeko arriskuan dago?

Bai. Guk bost urtez hirurogeita bost behor mantentzeko

konpromisoa daukagu. Horregatik, laguntzatxo bat ematen digute, Europatik finantzatuta datorrena. Pixkanaka, elkarrearen (ASCANA) kudeaketari esker eta Nafarroako Gobernuak Europarekin batera eman dituen laguntzei esker, azken hamar urteotan Auritz zaldi-azienda egoera hobetuz joan da. Ideia bat egiteko: 230 bazkide gara Nafarroako elkarrean, eta liburu genealogikoan hiru mila behor ama inguru daude izena emanda. Arraza bat desagertzeko arriskuan dagoela esaten da bost milatik behera daudenean.

Pandemia egoera nabaritu duzue?

Asko. Guk ganadua "bizitarako" saltzen dugu, hau da, behokak ama izateko eta zaldikoak hazitarako. Pandemiarekin Nafarroatik kanpoko erosleei saltzeko arazoak izan ditugu. Orain, adibidez, Bartzelonatik eta Asturiastik etorri behar ziren bezero pare bat, baina etortzeko trabak dituzte Nafarroa itxi behar baitute. Udan ere arazoak izan ditugu, jendeak beldurra du, ez du mugitu nahi, eta bizitarako ganaduaren salmenta gutxitu egin da.

"Bizitarako" saltzea garrantzitsua da?

Horrela etekin gehiago atera dezakegu, ze haragitarako prezioa dagoena da eta kitto. Baina esplotazioa mantentzeko, guk behintzat, "bizitarako" saltzen dugu, asko. Eta jendea atzera egiten ari da, orain erosi beharrean datorren urterako uzten, eta abar.

Aurten, beraz, gaizki.

Aurten abeltzainok egin dugun lana gutxi baloratu dela iruditzen zait. Txalo asko egon dira askorendako, merezi dutenak, noski, baina abeltzainak ere hemen egon gara, lanean, egunero, egon diren zailtasun guztiekin. Eta esker gutxi ikusten dut. Aitorpen gutxi. Adibide bat jartzeagatik, Irurtzunen erreportaje bat egin zen, eta gremio guztiak agertu ziren, okina, harakina, dendaria... Eta ez zen herriko abeltzain bat bera ere agertu. Harategian haragia badago lanean jarraitu dugulako da. Arrisku guztiekin, egunero.

Behiekin oraintxe bertan diru asko galtzen ari gara. Kontsumoa jaitsi da, eta behiak hiltzeko atzerapenak daude. Beraz, oraintxe

ez daukagu ez dirurik eta ez errekonozimendurik ere.

Nola ikusten duzu sektorearen etorkizuna?

Oso zaila iruditzen zait esplotazioetan lanean hasi nahi duen gazterik egotea, gaur egun dauden zailtasunekin: merkatua, prezioak... Egunero eskakizun gehiago daude, bai ingurumenari begira, bai burokrazia aldetik ere.

Gainera, harategi batean orain prezioa duela urtebetekoaren berdina da. Baina guri kilo (behiarena) hogeita hamar zentimo jaitsi digute. Non daude hogeita hamar zentimo horiek? Zuri harategian berdin kobratzen badizute, eta guri kendu egin badizkigute, non geratzen dira? Oso zaila da honetaz bizitzea. Azkenean abereekin lan egiten duenak bigarren jardura bat izan beharko du; bigarren lanbide bat.

Nola eragin dizue ferien faltak?

Guretako Altsasuko feriak erakusleho garrantzitsuak dira. Jendea etortzen da Gipuzkoatik, Logroñotik, Santandertik, Asturiastik... Kantauriar eskualde osotik etortzen dira, eta erakusleho horrek gure produktuak saltzen laguntzen digu. Oso garrantzitsuak dira feriak, eta aurten ez dugu bat bera ere izan.

Zaldi haragia ez da asko jaten hemen.

Kultura kontua da. Hemen beti egon da ohitura behi eta txerri haragia jateko, baina ez zaldikia jateko. Gaur egun medikuek zaldi haragia gomendatzen dute, bitamina gehiago eta grasa gutxiago daukalako. Orain pixkanaka gehiago saltzen ari da hemen ere, horregatik, dituen ezaugarriengatik. Jaten ez bada kultura kontua da.

AZKENEAN

ABEREKIN LAN EGITEN DUENAK BIGARREN LANBIDE BAT IZAN BEHARKO DU

HARAGIAREN PREZIOA HOGEITA HAMAR ZENTIMO JAITSI DIGUTE, BAINA HARATEGIAN PREZIOA BERDINA DA



Garikoitz Petriati abeltzain arbizuarra ezkerrean eta bere pottokak eskubian. JON

"Arbizun jendeak ez du ganadua basora botatzen"

GARIKOITZ PETRIATI ABELTZAINA

Garikoitz Petriati arbizuarrak pottokak hazten ditu. Aurizko zaldi aziendarekin gertatzen den bezala, pottoka bertako arraza bat da, desagertzeko zorian dagoena

Jon Arakama Goikoetxea ARBIZU
Noiz eta nola hasi zinen pottokekin?
Duela bost-sei urte hasi nintzen. Etxean beti izan ditugu behorrak, nahiz eta gero kendu egin genituen. Beti gustatu izan zaizkit behorrak, feriak eta hori guztia. Gero pentsatu nuen berriro jartzea, baina Arbizuko basoa hektarea gutxi dira, eta behor handiak jartzen badituzu errepidera jaitsi daitezke. Horregatik jarri nituen txikiak, pottokak, gutxi-ekin irauten dutelako beti goian, ahuntzak bezala.

Gogorragoak dira.
Gutxiago behar dute. Elurrarekin-eta jaisten dira behera, baina gehienetan lau belar eta lau adar punta janda nahiko gizen egoten dira.
Nola zaintzen dira pottokak?
Arbizuko beheko basoan edukitzen ditut eta apiril aldera larrera jaisten ditut, umeak egiteko. Umeak egin ondoren, maiatzean edo ekainean, hartu eta Aralarra eramaten ditut. Han egoten dira orain arte, eta berriro Arbizuko baso komu-

nalera eramaten ditut, negua pasatzera.
Arbizuko basoan ongi daude?
Arbizuko basoaren arriskua da hogeita hamar urtetan ez dutela itxi. Etxarrin eta Lakuntzan, adibidez, basoak txarrantzarekin itxita daude. Arbizon ez. Eta Arbizon ganadua badago, baina jendeak ez du botatzen beldurra dutelako Lizarrusti aldeko bideberrira ateratzeko, auto batekin istripuren bat izateko.... Nik horregatik dauzkut pottokak, gutxi-ekin eusten dutelako non-

nahi, eta jaitziz gero gora igotzen ditut eta pentsu pixka bat ematen diet han geratzeko.

Pottokei etekinik ateratzerik badago?
Zerbait bai, baina hortik bizitzeko ez. Noizbait saldu izan ditut, "bizitarako", baina normalean hiltegiara eramaten ditut. Nik hobby bezala dauzkut, nire burua basora gehiago joatera bultzatzeko; afizioagatik. Etekinen bat ateratzen dut, baina gutxi.

Bertako arraza da?
Bai. 2014tik Nafarroako Gobernuak onartu zuen pottokak Nafarroa bertakoak zirela, eta dirulaguntzak ematen hasi ziren. Ehun euro behor bakoitzeko.

Desagertzeko arriskuan daudelako.
Paleolitikotik daude behor hauek hemen. Urdazubiko eta beste kobazulo batzuetan opatutako behorrak (marrazkiak), antza denez, pottokak ziren. Nafarroan hirurogei behor inguru egonen dira. Pottoka horiek hemen egon dira bizi guztian, baina jendeak egin izan duena da "*ande o no ande, caballo grande*", eta, horregatik, beste zaldi batzuekin gurutzatzen ziren. Behorra ez da txerria bezala, ez du botatzen diozun guztia jaten. Pentsuarekin tranpa egiteko zerbait botatzen badiotzu, gizentzeko-edo, ez du jaten. Sudurrak zabaldu, usaitu eta atzera egiten du. Horregatik beti gurutzatu izan dira arraza handiagokoekin, haragitarako gehiago pisatzeko.

Jaten da behorren haragia?
Hemen ez daukagu ohitura hori. Hemengo ekoizpenaren gehien-

"ETXARRIN ETA LAKUNTZAN BASOAK TXARRANTXAREKIN ITXITA DAUDE; ARBIZUN, EZ"

goa Italiara eta Frantziara joaten da. Hemen gutxiago jaten da.

Zaporeagatik edo?
Esaten dutenez gozoagoa da. Uste dut kultura kontua dela. Kirolari-ek-eta jaten dute, ona omen da anemiaren kontra.

Pandemia nabaritu duzu?
Pottokak zaintzeko ez, abeltzain txartela aterata, arazorik gabe. Baina haragiaren prezioa jaitsi da, kiloak hogeitazentimo gutxiago balio du. Dena jaitsi den aitzakia erabilia jaitsi da, baina hemen jaitsi da, tratantearekin-edo ordaintzen dizunarekin, zeren Italian eta Frantzian demanda berdina da.

Ferien falta sumatu duzu?
Asko. Ni denetara joaten nintzen, San Ferminetara, Miranda de Ebrora, Eletara, Ezpeletara... Hemen ere bai, Altsasura, Etxarrirra... Ferietako saltsa hori faltan izan dut.

Haragia emateaz aparte, zertarako erabili izan dira pottokak?

Aldamenek esaten didatenez haiek horrelako behor bat izaten zuten. Aita artzaina zuten, eta pottoka gazta garraiatzeko erabiltzen zuten, gurdi bati lotuta. Lehen lanerako erabiltzen ziren, gurdiak eramateko. Orain, ekoizpenerako ez dira onenak. Gainerako behorrak pisu gehiago daukate eta haragi gehiago ematen dute. Ekitaziorako, saltoetarako eta abar erabiltzen hasi dira. Pottoka batzuek horrelako txapelketak irabazi dituzte.

Garesti ateratzen da pottokak haztea?
Ez. Behor handiagoeekin azpiegitura gehiago behar dira, jateko gehiago behar dutelako eta basoan utziz gero errepideraino jaisteko arriskua dagoelako. Pottokekin, aldiz, ez daukat ia gasturik. Udan, larrera jaisten ditudanean, larre horiek ordaindu behar ditut, baina gainerakoan basoan egoten dira.

C.A. OSASUNA
ATHLETIC CLUB

IRAILAK 4, IGANDEA
18:30-20:30
(IRRATIKO KONEXIOA 18:15EAN)

EUSKALERRIA IRRATIAREN BIDEZ



107.3 FM

beleixe

ZUZENEAN

948 567 074 | IRRATIA@BELEIXE.EUS



948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta
bigarren eskukoak
SALMENTA

Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea

"Nahikoa da lur horrekin familia batendako"

PATXI XABIER RAZKIN SAGASTIBELTZA LAKUNTZAKO ALKATEA

Lakuntzako Udalaren baratze ekologikoen kontzesioa eta erabilera arautzen dituen ordenantza berriki onartu da: aisirako, harremanak sustateko eta naturarekin lotzeko

LAKUNTZA

Zer da martxan jarri nahi duzuen baratze sozialen programa?

Arakilgo alkate Oihana Olaberria Jakak esan zigun Espainiako geoplasma bankuan 70. hamarkadan Lakuntzan jasotako hainbat hazi zeudela. Horrek guregan interesa sortu zuen, eta pentsatu genuen hazi horiei berriz bizia eman behar geniola. Eta, nolabait ere, lakuntzarrak, gazteak-eta trebatzea ere. Aldi berean, COVID-19aren krisia etorri zen. Bazirudien jendeak, atzera ere, lurrarekin konektatzen hasi nahi zuela. Bestalde, ikusten genuen bazeudela gazetxo batzuk udaletxera etortzen zirenak aspaldi baratze libreak edo alokatzeko baratzak ote zeuden galdezka.

Ordenantzak zein helburu ditu?

Gehien bat lurraren erabilera arautzen du. Bakar-bakarrik baratzerako erabili daiteke, ez aisialdi eremu gisa. Prestakuntza ere. Esperientzia duten hainbat lakuntzar kontuan izanen ditugu ikastaroak antolatzeko: negutegiak edo baratzenak nola kudeatu erakusteko. Beste irizpide bat izanen da geoplasma banku horretan dauden Lakuntzako zazpi hazi horiek erabili behar direla. Horietaz aparte bestelako landareak jartzeko aukera izanen da. Horrela bertako haziak berreskuratu eta erabilera emanen zaie. Hirugarren irizpidea da baratza eredu ekologikoari segituz lantzea da.

Ezagutzaren trukea sustatu nahi duzue, beraz.

Hori izan da prozesu honetan interesgarriena, jakituria transmititzea, ez galtzea gure aitona-amonekin edo gurasoekin. Gazteei transmititzea eta herritarrak lurrarekin, nolabait, konektatzea. **Baratzak modu ekologikoan lantzea.** Gutxienekoak dira: gai kimikorik ez erabiltzea, bertan sortutako ongarririk erabiltzea eta abar.



Larreñondon dago lursaila, landarez hesitutakoaren ondoren.

"PROZESUKO GAUZARIK INTERESGARRIENA JAKITURIAREN TRANSMISIOA DA"

Zeinek har dezake baratza bat?

Baratza eskuratzeko aukera izanen dute lur eremu bat ez daukanak, erosi edo alokatu ezin duelako, edo ekonomia zailtasunak dituenak eta berarendako erabili nahi duenak.

Non egonen dira baratzenak?

Lakuntzako Udalak 1.818,24 metro karratuko zeukan terreno bat Larrañondo parajearen hilerrietan behera. Lur hori bere garaian Nafarroako Gobernuren eta Sakanako Autobiako (A-10) lanak zirela eta han ur asko pila zegoen. Lur hori zabor-tegi zaharra ixteko, tapatzeko baliatu dugu. Eta gelditu den lursail hori, gutxi gorabehera 50 m²-ko partzelatan banatu dugu (20 baratze). Nahikoa da lur horrekin familia batendako. Epe ertainera erabiltzaile guztien aitzurrak eta tresnak gordetzeko etxola bat egiteko asmoa dugu.

Ura izateko putzua ere izanen du. Hura egiteko baimena tramitatzen hasi gara.

Kolektiboendako izanen da?

Horretan ere pentsatu dugu. Eskolak badu bere baratza propioa ikastetxe eremuaren barruan. Aurten, COVIDaren kontuagatik, ez dute landu. Aurten bizitza guztia aldatu da. Baina bestelako kolektiboetan pentsatu dugu. Izan daiteke Biltoki elkarteak, Zabalarte edo... Elkarteendako hiru partzela gorde ditugu, kolektiboki landu nahi badira, horretarako egonen dira.

Noiz hasiko dira Larrañondon aitzurrak?

Espero dugu udaberriaren izatea. Asmoa aurten egitea zen, baina pandemiarekin planak atzeratu zaizkigu.

Gaur egun baratza duten lakuntzarrek geoplasmako haziak eskuratzeko aukera izanen dute?

Bai. Oraindik ez dakigu nola egiten dugun hazi horiek martxan jartzeko, baina hasi gara ikastaroak antolatzen (irailaren 25ean aurrenekoa izan zen). Hazi horiek segurtasunez aurrera ateratzen ditugunean, edozein herritarrek bere esku izanen ditu, erabiltzeko.

Irurtzun eta Altsasu etxebizitza hutsak detektatzeko planean

Nafarroako Gobernuak etxebizitza hutsen errolda sortzeko plan pilotuaren bigarren fasean sartu ditu, besteak beste, Irurtzun eta Altsasu. Bi herrietan hutsik egon daitezkeen etxebizitzak zerrenda egina du eta haien jabeek gutuna bidaliko die. Idatzi horren bidez jabeek jakinaraziko zaie Nafarroako Gobernuak etxebizitza horien alokairua

sustatzeko bere esku jartzen dituen neurriak eta pizgarriak zein diren. Helburua litzateke jabeek beraien etxebizitza huts horiek Nasuvinsa enpresa publikoaren alokairu poltsan sartzeta. Hala, etxea alokatzeko ematen duen jabeak ziurtatzen dio errenta garaiz kobratuko duela, eta komunitateko gastuak ordainduko direla, kontratua sinatzerakoan 1.500 euroko laguntza, kontratua bukatzean pisua egoera onean itzultzea eta %40ko desgrabazioa.

Domu Santu Egunean hilerrian, gehienez, 413 pertsona

Azaroaren 1ean eta 2an hilerria bisitak egitera bakarrik joan ahal izanen da. Txukunketa lanak aurretik egin

ALTSASU

Pandemiak aurten baldintzatu duen beste data seinalatu bat da Domu Santu Eguna. Altsasuko Udalak hainbat jakinarazpen egin ditu. Alde batetik, azaroaren 1ean eta 2an hilerria bisitak egitera bakarrik joan ahal izanen da. Bi egun horietan ezin izanen da hilobien txukunketa lanik egin, beraz, horretarako aurreko egunak erabili beharko dira. Jakina, erabilera komuneko eskailera eta plataformak eta iturriak erabiltzen direnean, gel hidroalkoholikoa erabili beharko da. Udalak jakinarazi duenez, azaroaren 1ean eta 2an hilerriko iturriak itxita egonen dira eta, beraz, ez da ura hartzeko aukerarik izanen. Eta plataformarik eta eskailerarik ere ez da erabiltzarik izanen.

Kanpo santura bisita egin nahi dutenek, gehienez, lauko

taldeetan sartu beharko dira. Elkarrekin bizi ez diren pertsonen kasuan haien artean 1,5 metroko segurtasun tartea utzi beharko dute. Nahitaezkoa da maskara erabiltzea eta kontaktu pertsonalik ez izatea. Halaber, hilerriko egonaldia mugatu beharko da.

Udalak gaztigatu duenez, ezin izanen dira hilerria joan COVID-19 gaixotasunarekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak. Bestalde, arrisku taldeko edo talde zurgarri baten kide diren pertsonen Altsasuko Udalak gomendatu die azaroaren 1ean kanpo santura ez joatea eta bisita aurreko edo ondorengo egunetan egitea. Horrekin lortu nahi dena da elkarrekin bizi ez diren pertsonen kontaktua izatea saihestea. Udaltzaingoak arauak betetzen direla zainduko du.

Irurtzungo Udalak garbitzaileen zerrenda osatuko du

Irurtzungo Udalak, oposizio bidez, sortzen diren garbiketaren beharrei erantzuteko beharrezko diren garbitzaileak aldi baterako kontratatzeke izengaien zerrenda sortu nahi du. Zerrenda hori lanpostu hutsak aldi baterako betetzeko da. Oposizio deialdian parte hartu ahal izateko hilaren 29ko 15:00ak arte eman daiteke izena

Garbiketa lanak egiteko pertsona kontratatuko du

Uharte Arakilgo Udalak jakinarazi duenez, 51 urtetik gorako pertsona bat kontratatu nahi du garbiketa eta desinfezio lanak egiteko. Izan ere, pandemiarekin egiteko horiek handitu dira. Deialdian interesa dutenek Altsasuko enplegu bulegoan izena eman beharko dute asteleheneko 13:00ak baino lehen.



Euskaraldiko informazio eta izena emateko mahaia Altsasun. UTZITAKOIA

Euskaraldiak Sakanan 347 arigune izanen ditu

Ibarreko 116 entitatek eman dute izena Euskaraldian eta haien bidez 347 Arigune sortuko dira

SAKANA

Euskararen erabilera handitze-ko ariketa soziala azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingen da. Sakandarrek dagoeneko bada-kite 347 tokitan, arigunetan, euskaraz lasai asko hitz egiteko aukera izanen dutela. Izan ere, 116 entitate sakandarrek eman dute izena Euskaraldian eta haiek izan dira arigune horiek sortu dituztenak. Haietan hizkuntza ohituren aldaketa kolektiboki ere egin daitekeela erakutsiko da.

Sakanako Euskaraldiko arduradunek azaldu dutenez, 347 arigune horietatik %52 barne ariguneak eta %48 kanpo ariguneak dira. "Mota guztietako entitateek eman dute izena: udalek, mankomunitateek, ikastetxeek, euskaltegiek, liburutegiek, musika taldeek, elkarte gastronomikoek, dendek, tabernek, jatetxeek, kanpinek, finantza erakundeek, botikek, ile apaindegiek, gaztagileek, taillerrek..." Jakinarazi dutenez, "entitate horietan 1.070 lagunek parte hartuko dute, bakoitzak aukeratutako rolaekin, Ahobizi edo Belarriprest". Euskal Herrian, guztira 6.737 entitatek parte hartuko dute 25.000 arigune sortuz. Antolatzaileek oso balorazio ona egin dute, are gehiago, koronabirusak eragindako egoera kontuan hartuta.

Norbanakoen txanda

Euskaraldia hasteko hilabete eskas falta da. Aurten ere parte hartze handia izatea espero da.

Sakanako Euskaraldiko batzordeek herrian izena emateko mahaia jartzeko asmoa dute, baina pandemiak oztopatu egiten du. Horregatik, batzordeek ahal duten guztiei online izena emateko deia egin dute. Horretarako, <http://izenematea.euskaraldia.eus> webgunea erabili. Aurreneko Euskaraldian parte hartuzutenek e-postan mezua jasoko dute parte hartzera gonbidatuz. Haren bidez eroso asko eman dezakete izena. Aipatu web orrian, gainera, Belarriprest eta Ahobizi rola izateak zer suposatzen duen azaltzen da.

Euskal Herrian 421 Euskaraldi batzorde sortu dira, aurrekoan baino 16 udalerrri gehiagotan. Sakanan ere datuak hobetu dira eta 10 batzorde izatetik 15 batzordera pasa da: Irurtzun, Arakil, Uhartea Arakil, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Lizarraga, Lizarragabengoa, Etxarri Arantz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia. "Koronabirusak zaildu egin du batzorde horien lana, baina aurrera jarraitzen dute. Sakandarrei dei egiten diete Ahobizi eta Belarriprest rola aukeratu eta Euskaraldian izena emateko".

Deia

Irintarrei Uhartea Arakilen izena emateko deia egiten zaie. Dorrao eta Unanukoei, berriz, Ergoiena-Lizarragan izena eman dezatela eskatzen zaie. Horrela eginda, Ahobizi eta Belarriprest txapen banaketa erraztuko dute.

EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra

EMAN IZENA!

www.euskaraldia.eus

f t i

euskaltzaleen topagunea

Gobierno de Navarra

Nafarroako Gobernu

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN EGURDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 23

ALTSASU Intxostiapuntaren urteurrena: Bertso saioa.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzeak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske elkarretaratzea.
20:00etan, udaletxearen parean.

LARUNBATA 24

ALTSASU Talde dinamikak ikastaroa.
16 urtetik 30 urtera. Plaza mugatuak. Izena emateko: 948 564 785 edo 607 617 778. 15 euro.
10:00etatik 14:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Gazte agenda: Billar txapelketa.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Euskaraldia Batzordearen izena emateko eta informatzeko mahaiak.
18:45etik 19:45ean, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Artedrama, Axut! eta Dejabu konpainien Zaldi Urdina antzezlana.
Antolatzaileak: Sakanako BERRIAlagunak eta Sakanako Mankomunitatea. Sarrerak agortuta.
19:00etan, Iortia kultur gunean.

IGANDEA 25

ALTSASU Ziordia – Gobazpi – Lezaun – Kipular ibilbide zikularra eginen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.
Antolatzailea: Juanito Urrea.
08:00etan, egoitzatik.

ALTSASU Nacho Villar producciones konpainiaren El flautista de Hamelin familiarterako antzezlana.
17:00etan, Iortia kultur gunean.

IRURTZUN Xabier Artiedaren Everybody needs... Heroes! antzezlaren emanaldia. 5 euro.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 26

ALTSASU Pentsio duinen alde.
Sakanako Jubilatuen eta Pentsiodunen Koordinakundearen kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.



ALTSASU Altsasuko IX Arte Azoka.
Urriaren 9tik 31ra arte.
Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:00etara, larunbatetan 18:30etan eta igandetan 19:00etatik 21:00etara. Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.

ASTEAZKENA 28

ALTSASU Osasun etxea zaindu! Oinarrizko osasun arretarako baliabide gehiago eskatzen ditu Nafarroako Osasun Plataformak.
11:00etan, osasun etxearen parean.

OSTEGUNA 29

LAKUNTZA Kattalingunea bulegoa.
Harremanetarako: Goretti Etxepare Alberro sexologoa: 948 229 149 eta 678 266 865 telefonoetan eta iparmendebalde@kattalingunea.org epostan.
11:00etatik 19:00etara, udaletxean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEA
ARETO NAGUSIA

Black beach gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 23: 20:00

Black beach gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Igandea 25: 19:30

Akelarre gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 29: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEA
ARETO TXIKIA

¡Va por vosotras! zineforum filmaren emanaldia
Igandea 25: 19:40

Ane ¿Realmente conoces a tu hija? zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 29: 19:00

BAZKIDE ZOZKETA
AZAROKO SARIAK

1. SARIA:
EKAINBERRIKO KOBAZULOAK: 2 sarrera
ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua
LACTURALE: Esneki lotea
GAZTEZULO: 3 hilabetez doan
EREIN: Argitaletxearen liburu bat

2., 3. ETA 4. SARIAK:
DONOSTIAKO AQUARIUMA: 2 sarrera
ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua
LACTURALE: Esneki lotea
EREIN: Argitaletxearen liburu bana

Eta ni ez nauzue zorionduko?

948 564 275
ZORION@GUAIXE.EUS

DN DE KOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com - www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU - Tel./Faxa: 948 468 360 - Telefono mugikarra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

LOKALA

ERRENTAN HARTU

Sakanan, gutxienez 3 metroko altuera duen baxera baten bila gabiltza, errentan hartzeko: Lakuntza inguruan bada hobe. Amaia 616 554 180. Milesker.

IKASTAROA

Business Intelligence: Power BI trensaren aukerak ezagutzeko saioa: Jardunaldia %100 diruz lagunduta dago, eta Nafarroako enpresetako langileei eta edozein enplegu bulegotan eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeei zuzenduta dago. Azaroaren 11an, asteazkenean, goizeko 10:00etatik 13:00etara Altsasuko lortia Kultur Gunean. Izena emateko formularioa bete hurrengo helbidean: <https://www.clubdemarketing.org/inscripcion.aspx?data=332020141>.

LEHIAKETA

Gazteentzako zientzia eta teknoko bideo lehiaketa Elhuyarrek antolatuta: 12-18 urteko gazteei zuzendua eta bakar-ka edo taldeka (4 gehienez) parte hartu daiteke. Saria Futuroscope parke-rako 2 eguneko bidaiak. Parte hartzeko baldintzak eta informazioa www.zientzia-azoka.elhuyar.eus weborrian. Izena emateko epea urriaren 30ean amaitzen da.

OHARRAK

Intxostiapuntako ordutegiak: Gaztegunea astelehenera ostegunera, igande eta jaiegunetan 17:00etatik – 21:00etara, ostiral eta larunbatetan 17:00etatik 22:00etara, ekintza berezietan 17:00etatik 01:00etara. Informazio gunea astelehenera ostiralera 07:30tik 15:00etara eta asteazkenean 07:30tik – 12:00etara eta 17:00etatik – 20:00etara. Tfnoak 948 564 785 / 608 617 778, intxostiapunta@altsasu.net + gazteria@altsasu.net.

Altsasuko Txantxari ludoteka: Izena ematea Ludotekan bertan. Ezeztapenak urriaren 30 arte. Ordutegiak: 2012-2008 (astelehen, asteazken eta ostiralean 15:30-16:45 eta astearte eta ostegunetan 18:30-20:00), 2016-2013 (astelehenera ostiralera 17:00-18:15) eta 2020-2017 (astelehenera, asteazken eta ostiralean 18:30-20:00). Aurten 0-3 urteko saioak doakoak izango dira, baina, familiak izena eman behar dute talde egonkorrek sortzeko helbururarekin (laguntzen duen heldua beti pertsona bera izango da). Informazio gehiago 948 467 471 / ludoteka@altsasu.net.

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzen dirak diren ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun

izan nahi duzu? 600 482 024 telefonon edo AEKren Itsasi euskaltzaren duzu informazio guztia.

ETB-ko "Biba zuek" saio berrirako euskara ikasten ari diren pertsonen bila dabiltza: Donostiako Miramongo estudioetara joan eta zuzenean elkarrizketatuak izateko prest egongo diren pertsonak. Euskarekin lotura berezia dutenak, bizimodu desberdina edo historia bitxiak dituzten pertsonen bila dabiltza. Profil hau betetzen duen norbait ezagutzen baduzu 943 011 682 (Ihintza)- 655 283 427 tfnoetara deitu edo bibazuek@eitb.eus helbidera idatzi. Aldez aurretik, mila esker.

Xalao Telebistan Euskal City saio berrirako jende bila gabiltza: Saio bakoitzaren helburua euskara sustatzea da eta Nafarroan dauden egoera desberdinak plazaratzea nahi dira. Elkarrizketazailer bat eta bi gonbidatu, zeinak herri desberdinetakoak izanik beren herriko euskararen egoerari buruz, COVID-19aren eragina buruz eta hemendik aurrerako etorkizunari buruz hitz egingo duten. Norbait prest egongo balitz, gurekin harremanetan jarri xaloamagazina@gmail.com helbidera idatziz, 948 59 05 57 / 689 093 181 / 644 834 740 tfnoetara deituz. Animatu eta parte hartu! www.iragarkilaburak.eus

ESKELA



Katalina Araña Mendinueta

"Beti gure artean eta gure bihotzetan egongo zara, ama, amiña"

Etxekoak

Arbizun, 2020ko urriaren 16an

OROIGARRIA

Mikel Apaolaza Mendia

II. urteurrena

Beti egongo zara gurekin.
Maite zaitugu

OROIGARRIA



Mikel Apaolaza Mendia

II. urteurrena

Betiko autzi giazu zue irrifar
ta alaitasuna. Beti gue artien yongo za!

Maite zaitugu,

Zure kuadrilla

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

DUELA 25 URTE...



165 kide zituen Urdaingo liburutegiak

Han sartu eta eskuinetara Anjeli liburuzaina egoten zen. Bazkide ugari izan arren liburutegira jende gutxi joaten zela aitortu zion Guaixeri. Erabiltzaile handienak gaztetxoak ziren, etxeko lanak han egiten baitzituzten. "Irakasleak eskatzen duena irakurtzen dute bakarrik. Eta jende jarririk ez da etortzen". Hala ere, jende jarriarengana haien seme-alaben bidez iristen zen, haiei ematen baitzizkien amendako liburuak. Emakumezkoak baitziren irakurle handienak. Euskaraz gutxiago irakurtzen zela ere nabarmendu zuen liburuzainak.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



Vuelta Urbasatik iritsi zen Sakanara. VUELTA / CHARLY LOPEZ

Arrietarenak etxean garaile

TXIRRINDULARITZA Pandemiaren eraginez antolatzaileek Vuelta telebistatik segitzeko eskatu zuten eta, beste lasterketa batzuetan adina ez bazen ere, makina bat sakandar bide bazterrera atera zen txirrindulariak animatzera eta aldarrikapenak erakustera

SAKANA
Jose Luis Arrieta uhartearrak zuzentzen duen Movistar taldeak otsailaren 1etik zeraman etapa garaipen bat lortu gabe. Herenegun arte. Tourra, Giroa eta aurtengo denboraldiko zati handiena joana zuen. Vueltako bigarren etapa Iruñea eta Lekunberri Sakanan barna lotu zituen herenegun. Arrietak ederki ezagutzen dituen parajeak. Autobusean prestatutako estrategia

hitzez hitz bete zuten bere mutilek, eta Marc Solerrek Lekunberrin jaso zituen bi besoak. Movistarrekoak tropelaren agintea hartu zuten Urbasan. Eta horrek bosteko ihesaldiaren etorkizuna baldintzatu zuen. Imanol Erbiti eta bere kideek luzatu ederra eman zioten tropelari Urbasatik jaisterako tropela bi taldetan banatuta zegoen eta iheslariak harrapatzea eskura zuten. Makina urdinak lanean

segitu zuten eta Aralarko igoera lasterketa buru izanik egin zuten. Arrietarenak izan ziren aldapan gora erritmoa markatu zutenak. Richard Carapazen ahaleginak onenen taldea gehiago bakantzea lortu zuen, baina Movistar zen kontrola zuena. Aralar gainetik onenak elkarrekin pasa ziren. 100 bat metroko atzerapenarekin pasa zen Marc Soler eta Guardetxerako jaitsieran ihes egin zuen, Lekunberrira arte.



Tropela Urdiaindik pasatzen.



'Nazio bat gara' elkarretaratzeak deitu zituzten herri guztietan. SORTU ETXARRI



Gorka Izagirre tropel buruan ongi kokatuta. ASTANA



Imanol Erbiti tropel buruan, tiraka. ASTANA



Aralarko San Migel mendateak galbahe handia egin zuen. UTZITAKOIA

Beltza eta Gorriti finalerako txartelen bila lehiatuko dira

AIZKORA Aguraingo frontoian, bihar, 18:30ean eta igandean, 12:00etan, Aramaioko frontoian

UHARTE ARAKIL / ETXARRIARANATZ

2020ko Euskadiko 3. mailako Aizkora Txapelketako azken bi kanporaketak jokatu dira asteburuan. Eta bietan aizkolari sakandarren parte hartzea izanen da. Bi kanporaketetan hamaikana aizkolari izanen dira indarrak neurtuko dituztenak. Lau kanaerdiko moztu beharko dituzte eta kanporaketa bakoitzean egitekoak despetitzen dituzten aurreneko bi aizkolariak finalerako sailkatuko dira.

Dagoeneko finalerako sailkatuta daude Txomin Amundarain eta Julen Olano. Biek ere txapela eskuratzeko finalean zein beste lau aurkari dituzten jakinen dute asteburuan. Gure aizkolariei dagokienez, Agurainen Goizeder Beltza Igoa etxarriarra lehiatuko da eta Aramaion, berriz, Iker Gorriti uhartearra.

Harri jasotzea

Asteburuko aizkora lehiak harri-jasotzaileen lehiaketekin osatuko dira. Eta hor ere kirolari sakandarrak izanen dira. Zehazki Jon Irañeta irurtzundarra. Igandean, 12:00etan, Aramaioko frontoian ariko da. Binakako Harri-jasotze Txapelketako laugarren jardunaldian lehian sartuko da Irañeta igandean.

Irurtzundarraren bikotea Urdax Magunazelaia harri-jasotzailea izanen da. Bikoteak lau harrirekin lan egingen du: 175 kiloko laukiluzea, 138 kiloko kubikoa, 100 kiloko zilindro zarra eta 100 kiloko harri borobila.

Harri jasotzaile bakoitza bi harrirekin ariko da, bi minututan ahalik eta jasoaldi gehien eman ahal izateko. Bikoteak ahalik eta kilo gehien jaso beharko ditu txapelketan aurrera egin nahi badu.

Osasuna Magnak puntuak pilatzera bueltatu nahi du

Imanol Arregiren mutilek gaur, 21:00etan, Burelaren kontra jokatu dute Anaitasunan. Seigarren jardunaldiari dagokion partida da. Irurtzundarrak sailkapenean bosgarren dira 7 punturekin, Levante liderrarengandik 8 puntura daude. Bisitariak sailkapenean 7. dira sei punturekin. Zaleek ezin izanen dute neurketan presente egon eta

telebista bidez ikusi beharko dute partida.

Joan den larunbatean berdeek Jaenen kontra bina berdindu zuten. Irurtzundarrak irabazten hasi arren, bisitariak markagailua irauli zuten. Arregik zuzentzen dituenak berdintzeko gaitasuna izan zuten. Baina asteartean Sevilalara egindako irteeran galdu egin zuten. Aurreneko zati txar baten ondoren etorri zen berdeen erreakzioa, baina ezin izan zuten markagailua irauli eta 4-3 galdu zuten Betisen etxean.

Etxeberria 2021ean profesionaletan ariko da

TXIRRINDULARITZA Rural Kutzako afizionatu taldetik ProTeam taldera igo da. "Heldu den denboraldirako, profesional erregularra eta sendoa izatea espero dut. Mundu guztiak ez du aukera hau eta aprobetxatzea espero dut"

ITURMENDI

Josu Etxeberriak maila berria mustuko du heldu den urtean. Azken biak Rural Kutzako afizionatu mailako taldean aritu ondoren, 2021ean talde bereko ProTeam taldean ariko da. Taldetik adierazi dutenez, "txirrindulari iturmendiarrak itxura ona eman zuen bere debuteko denboraldian, Palentziako Itzulian etapa garaipen baliotsua lortuz edo Kantabriako Itzulian bigarren postua lortuz".

Hala ere, udan tropela errepidera bueltatzearekin batera Iturmendiko txirrindulariak emandako maila nabarmendu dute: "Etxeberriak irabazi zuen Zamorako Itzuliko sailkapen nagusia, etapa nagusian erakustaldi bikaina eman ondoren". Hala ere, iturmendiarrarendako aurten ez da dena zoriona izan: 23 urtez azpiko Italiako giroan erorketa batek, bere urte akaberak zatia baldintzatu du.

Adierazpenak

Emanen duen aldaketarekin "oso pozik" dagoela esan du Etxeberriak: "eskoletan entrenatzen nuenetik bilatzen nuen ametsa. Txikitari profesionaltako karrerak ikustera erama-



Josu Etxeberria garaipen bat ospatzen. ARTXIBOA

ten ninduten bakoitzean, entrenatzeko gogo handiagoz itzultzen nintzen haietako bat izateko, eta egun hori iritsi da". Aurtengo denboraldia "COVID-agaratik arraroa izan da". Etxeberriak gaineratu duenez, "banekien aukerak gutxiago izanen

zirela. Horregatik, gogor lan egin nuen aprobetxatzeko, eta kalitatezko arrastoa utzi ahal izan nuen. Zamoran lortutako garaipenaren ondoren, akats batzuk egin nituen, bi erorketa jarraian, stagiaire gisa nahiko nukkeen bezala aritzea eragotzi zidatenak".

Azkenik, Etxeberriak gaineratu duenez, "Caja Rural-Seguros RGaren filialean egoteak asko balio izan dit txirrindulari gisa prestatzeko, arlo profesionala ezagutzeko eta akatsetatik ikasteko".

"ESKOLETAN ENTRENATZEN NUENETIK BILATZEN NUEN AMETSA DA PROFESIONALENA"

Grande Abuelo
FLORES S.L.

Utzubar Industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra

Konfiantzazko aseguradora orokorra!

MAPFRE
La aseguradora global de confianza

ASÍ SON LOS PRECIOS DEL SEGURO DE AUTOS HORRELAZAK DIRA AUTO ASEGURAREN PREZAK

LA GARANTIA DE POR VIDA BETIKO BERMEA DA LA GARANTIA EFECTIVA* (SIN MANDAR COMPARTIR)

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU

- BEROKUNTZA - NEKAZARITZA -
- AUTOMOZIOA -

Lakuntza

Etxera eramateko gasoleoa

Alberto Iriarte

948 576 016 - 609 421 680



Xuar Altsasuko metal taldea. UTZITAKOIA

Entzuleek erabaki dezaten

Lehenengo kontzertua, aurkezpen ofiziala, martxoaren 13an egin behar zuten. Baina hurrengo egunean alarma egoera ezarri zuten, eta bertan behera utzi behar izan zuten. Agertokira igotzeko gogotsu dago Xuar Altsasuko metal taldea

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Hogei urte inguruko gazteak dira. Guztiak aurretik beste taldeekin arituak dira, eta hamar urte inguru daramatzate musikaren munduan. Punketik, rocketik eta power metal bezalako

estiloetatik pasa direla esan dute. Azkenean, zerbait "gogorragoa" jo nahi zutela pentsatu eta duela urte bat Aritz Mendikute gitarrak jolea, Asier Palomino gitarrak jolea, Hodei Unamuno baxu jolea, Mikel Etxabarri bateriak jolea eta

Mikel Flores abeslaria elkartu ziren taldea sortzeko. Oinarrrian metala dago, metal estiloa bere adierazpen osoan.

Shuar Perun eta Ecuadorren bizi den tribu bat da. Bere be-reizgarririk ezagunena eta dei-

garriena murriztutako buruak dira. Tribu honek jarraitzen duen ohitura zahar bat da, sinbolismo handia duena. Xuar, ixarekin, aldiz, Altsasuko metal estiloko talde bat da. Aritz, Asier eta Mikel taldeko kideek azaldu dutenez, mistizismoa edo sor dezakeen beldurra ez ezik, tribu honek duen musika kultura "anitza eta handiagatik" aukeratu dute izen hori taldeari jartzeko. "Tribuko kideek beraien instrumentu propioak eraikitzen dituzte eta Perun eta Ecuadorren kultura ondare izendatuta daude". Hitz jokorako ematen du, izan ere, Sugar euskal mitologiako pertsonaia bat da. "Izenak badauka bere xarma".

Xuar izenaren ondoren, Metal Altsasu abizenak jarri dizkiote taldekideek. Metal estiloa "Amazonas ibaia bezalakoa" dela aipatu dute taldekideek. "Adar asko ditu". Metal mota asko daude: Doom metal, melodic metal, black metal, death metal, power metal, post metal... Xuar taldeko kideei hardcore estiloa gustatzen zaie. "Taldekide bakoitzak musika eragin desberdina dugu, baina adar berekoak direla esan daiteke. Antzeko estiloak dira". Beraz, nahiz eta metalaren adar desberdinetan oinarritzen diren, "nahiko gertu daude". Pantera eta Rise of the Northstar taldeak aipatu dituzte taldekideek, groove metal eta hadcore adibideak. "Musika guztion artean egiten dugunez, bakoitzak bere estiloa ematen dio". Barrutik ateratzen zaiena musika bihurtzen dute eta bere musika metal bezala deskribatu dute, "ez

TALDEKIDE BAKOITZAK MUSIKA ERAGIN DESBERDINA DU, "BAINA ADAR BEREKOAK"

dakigulako zehazki non jarri gure musika". Entzuleari etiketak jartzeko lana utzi diote.

Pantera taldeak "beldurra eman dezagun" esaldia esaten zuen, eta Xuarrek bere gain hartu du leloa. Horregatik, "musika gogorra" egitea gustatzen zaie. "Denborarekin estiloa aldatu dugu, eta zerbait gogorragoa egiteko elkar-tu ginen". Ez dute jendea kontzertuetatik "korrikan alde egitea" nahi, baina haien musika indartsua dela aitortu dute. Letrek, gainera, "kontu asko" aipatzen dituzte: "Autoestimua, ondo egotearen beharra, bulling-a...". Musika ona egiten dutela uste dute taldekideek.

Momentuz zortzi abesti propio sortu dituzte. "Urte bat eramateko uste dugu nahiko lan ona eta indartsua egin dugula". Lehenengo kontzertua martxoaren 13an izan behar zuten, "hemen dugu kartela, entsegu lokalean". Altsasuko Gaztetxean egin behar zuten aurkezpena. Baina koronabirusaren eraginez emanaldi guztiak eten egin ziren. "Hurrengo egunean alarma egoera ezarri zuten". Indartsu hasi behar ziren, izan ere, ekainaren 6an bigarren kontzertua zuten Irurtzunen. "Ea noiz ematen diguten aukera kontzertuak egiteko". Administrazioak kultura sustatzeko lan gehiago egin behar-ko lukeela uste dute.

Lehenengoaren zain

Oraindik ez dituzte kontzertuak eskaintzeko datak jarri. "Gure musika ez da aulki batean eserita entzuteko modukoa". Agertokira igotzen diren bitartean, Xuar_Altsasu Instagram kontuan entzun eta ikus daitezke Xuar-en nondik norakoak.

Pandemiagatik gelditu beharrean, gogotsu ari da Xuar taldea lanean. Garai hau entzateko eta musika sortzeko baliatzen ari dira. "Kontzertuak momentuz ezin ditugunez eman lan eta lan ari gara abestiak hobetzen. Azken ukituak ematen. Batzuetan uste duzu abesti bat bukatuta dagoela, baina bat-batean entsegu batean beste zerbait egin eta aldatzea erabakitzen dugu". Beraz, denbora tarte hau "aurkezpen askoz hobe" egiteko lanean ari dira.

Konfinamenduan ere musika egin dute haien etxean, eta deskonfinamenduan herri batean bizitzea eskertu dute: "Madrilgo lagun batek esan zidan entsegu lokalera joateko ordu erdi behar zutela, kotxean. Gu oinez goaz eta etxe ondoan gaude. Hori luxu handia da".



BAZTERRETIK

JUAN KARLOS LOPEZ-MUGARTZA

Gezuraren kontra

Gezurra da nagusi Trumpen ahoan, baina asko dira haren esanak sinesten dituztenak, benetan egia zein den jakin gabe bizi nahiago dutenak. Faltsuen eskutik gezurraren inperioa gailentzen ari dela emango luke, ugaria baita fake, propaganda eta manipulazioa. Baina gure esku dago Goeblesen itzalaren aurka borrokatzea, zenbaitetan oso gogorra eta arazo iturri izan daitekeen arren.

Gezurtiarekin bat ez datorrenak difamazioa eta bazterketa pairatuko ditu, gezurtiek egia bahitu eta gezurra haren lekuan jarri nahi dutelako. Horregatik egiazaleak haien etsairik handienak

dira, beren gezurren manipulazioa salatzen dutelako eta, agian, beren ideiez kutsaturik, baten batek haiei aditu eta sinets diezaiekelako.

Gezurrien jardunean beti besteek dute errua; besteak dira arazo guztien iturburu; egiazaleek egin ditzaketen gauza on guztiak desitxuratzen dituzte txarrak direla sinistarazteraino.

Zenbat eta handiagoa izan konbentzitu beharreko masa, orduan eta sinpleagoak dira haien gezurrak, gehiegi pentsatu nahi ez dutenentzat mintzo baitira; eta behin eta berriz errepikatzen diete haien gezur jarria, hura barneratu eta egia-tzat har dezaten.

Gezur berriak asmatzen ari dira etengabe ganoragabe guztiak egiazaleen aurka altxa daitezten. Eta errealtateak argi eta garbi erakusten badu gezurreran ari direla, azalpen edo interpretazio engainagarriak asma ditzakete; sinesgarriak baldin badira, egokiak dira manipulatu nahi duenarentzat.

Egiaren kontra egiteko argudiorik ez dutenean, isilarazten dute egia, edo beren komunikabideak erabiltzen dituzte bera zapuztu eta zikintzeko, Jangoi-koak zerutik botere osoa eman omen baitie eta horrekin ados ez dagoena kriminal arriskutsua da, kartzela merezi duena.

Aniztasunaren etsaiak dira eta aho batez erabaki dute oker gaudela. Bakarririk gaudela sentiarazi nahi digute. Baina jai dute gurekin. Gezur bat hamaika aldiz errepikatu arren, gezurra izaten jarraitzen du, eta ez da inoiz ere egia bilakatuko.



Mari Romero idazlea '¿Por qué no nos dejáis entrar?' liburu berriarekin. UTZITAKOA

"Jendea sentsibilizatzea da liburuaren helburua"

MARI ROMERO IDAZLEA

'¿Por qué no nos dejáis entrar?' hirugarren liburu kaleratu du Altsasun bizi izandako idazleak. Fikzioa erabili du errealitatean gertatzen diren istorioak islatzeko

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

La casa de la buhardilla Altsasun kokatzen den liburuarekin hasi zen Mari Romero literaturaren munduan. Duela urte bat *El pintor de sonrisas* liburu kaleratu zuen. Garai horretan errefuxiatuen istorioak biltzen hasi zen. Mutiko baten istorioa ezagutu zuen arte. Bere esperientziatik abiatu da *¿Por qué no nos dejáis entrar?* eleberria idazteko.

'¿Por qué no nos dejáis entrar?' liburu kaleratu berri duzu. Zertan datza?

Eleberriaren antzekoa da. Titulu horren azpian oso gogorra den errealitate bat ezkututzen da. Azkenean, nik errefuxiatu batekin bizitako pasadizo batzuk agertzen dira. Ez da nire izena eta pertsonaiak asmatu ditut. Istorioa ere fikzioa da, baina oso errealitate gogor batetik abiatzen da. Arazoa hor dago eta ezin ditugu begiak itxi. Nik esaten dudana bezala eta liburuan ere agertzen da: galdera ez da zergatik datozen, galdera izan beharko zuten zergatik ez dituzten sartzen

uzten. Borroka, pertseberantzia eta itxaporenaz beteta dagoen istorioa da. Pertsonak mugen gainetik egon behar dira beti. Jokoa jartzen da pertsonen askatasuna, eta horrekin kontu handia izan behar dugu.

Errefuxiatuen inguruko istorio bat da?

Bai. Protagonista mutil gazte bat da, errefuxiatua, eta kalean ezagutzen duen neska bati bere exodoa kontatzen dio. Esan bezala, eleberrian nik bizitako zati bat agertzen da eta fikzioa den

istorioarekin uztartzen da. Hala ere, errealitate hutsa izan daiteke. Bi zati ditu: kapitulu batzuetan neskarekin duen solasaldiak agertzen dira, eta beste batzuetan, Afrikatik hona etortzeko exodoa kontatzen du.

Aurreko liburu argitaratu zenuenean errefuxiatuen inguruko ipuinak idazten ari zinela esan zenuen. Ipuin hauek eleberri bihurtu dituzu?

Ez dakit ipuin hauek izango diren. Kalean edozein egunetan topatzen nituen mutikoen eta nesken inguruan idazten hasi nintzen. Bai Legazpin bai Altsasun topo egiten duzu beraiekin. Nik bat ezagutu nuen eta hasieran ez nuen harremanik berarekin, baina egun batean hizketan hasi ginen. Nik uste dirua, janaria edo laguntza baino, hitz egiteko beharra zuela. Bakarrik ikusten nuen, eta begi beltz hain tristeak... Aldi berean alaitasuna eta itxaropena transmititzen zidan. Orduan hasi nintzen etxera iristen nintzenez esperientzia horretatik idazten. Hortik liburu sortu da.

Istorio hori kontatzeko beharra zenuen.

Liburuaren helburua garbi izan dut hasieratik: pertsonak sentsibilizatzea. Orokorrean jendeak gai honen inguruan erantzun ona izaten du. Legazpiko eta Altsasuko egoera ezagutzen ditut eta egoera ona da. Baina uste dut oraindik asko dagoela egiteko. Beste helburu bat pertsona hauei leku bat ematea da. Beste modu batera ikustea. Ez dira bat-batean hemen agertu. Beraiek haien mundua dute, haien herria, eta haien faltarekin izugarri sufritzen ari diren familiak. Beste nonbait lotura handia duten leku bat existitzen da. Horregatik liburuan ere Nigeriako herritxo bati buruz hitz egiten dut. Hona datoz ezin dutelako gehiago jasan. Inork ez du bere burua arriskuan jartzen itsasoan, hain tristea bihurtzen ari den Mediterraneoan, beharrik ez badu. Hori garbi dago.

Testigantzetan bakarrik oinarritu zara?

Ez zaie sufrimenduari buruz gehiegi hitz egitea gustatzen. Beraz, telebistan ikusitako dokumentalak ikusi ditut, Nigeriari buruz dokumentatu naiz... Argazki batzuk bilatzea ere gustatzen zait, eta gero horiek deskribatzea. Istorioa gehienbat asmatutakoa da. Baina ez da erraza pasatu dutena imajinatzea. Fikzioa da, baina errealitatea

izan zitekeen. Errealitatetik oso gertu dago; eskutik helduta.

Urriaren 28an Altsasun aurkeztea behar zenuen, baina atzeratzea erabaki duzu.

Atzeratzea erabaki dut, bai. Egoera ez dago ekitaldiak egiteko moduan. Gainera, Nafarroa itxi dute eta ni Legazpin bizi naizenez ezingo nuke joan. Bertan behera uzten aurreratu ginen, baina ongi egin dugu. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiet liburutegiko arduradunei. Nirekin beti jarrera izugarria izan dute. Liburu Arkatz liburu dendan salgai dago eta arduraduna ere oso ongi portatu da beti nirekin. Momentuz ez dugu aurkezpenerako data jarri.

Liburu pandemiaren erdian argitaratu zenuen.

Aleak justu konfinamenduan geundenean iritsi ziren. Pixkanaka ezagunei, familiari eta abar banatzen hasi nintzen. Jarrera oso ona dute beti nirekin. Altsasuko lehengusinekin ere ez dut kezarik. Liburu kalean dago eta saltzen ari da. Gustura nago.

Liburu solidarioa ere bada, ezta?

Aita Mari salbamenduko itsasontzirako izanen dira irabaziak. Liburu hauekin ez gara aberatsak egingo. Diru aldetik ez da asko izango. Baina haiek dauden egoeran dena datorkie ongi. Ez dut arazoa konponduko, baina dirua itsas salbamendu humanitario bideratuko dut.

Bere lana gertutik ezagutzen duzu?

Errefuxiatuen alde lan egiten duen Hotz Legazpi taldean nago. Beraiekin kontaktua dugu eta arropa bilketa eta horrelakoak antolatzen ditugu. Jasotakoa itsasontzian Greziako kanpalekuek eramanen dute. Aita Mariko batzuk ere pertsonaliki ezagutzen ditut antolatu genuen erakusketa batera etorri zirelako.

Konfinamendua dela eta ez dela, liburu irakurtzeko momentu hobereena da, ezta?

Momentu egokiena. Irakurri duten pertsonak hori esaten dute: orain denbora gehiago pasatzen dutenez etxean erraz irakurri dutela. Gainera, gertatu zaidan gauzarik politena izan da liburu irakurri ondoren esan didatela mutil eta neska errefuxiatuak beste modu batera ikusten dituztela. Hori da niretako garrantzitsua. Horrela bada, helburua beteta dago. Liburu irakurtzera animatzen dut jendea. Erraz irakurtzen da, ez da luzea.



Ines Ormaetxea, mintzakide programako kidea. REBEKA

"Oso polita da Lakuntzan euskara gehiago entzutea"

Ines Ormaetxea lakuntzarrarekin elkartu gara, mintzakide programako kidea. Sakanan 14 talde inguru daude eta berak Lakuntzako taldean parte hartzen du. Gaur, bere esperientziaren berri izango dugu

Rebeka Mendoza LAKUNTZA

1 Noiz hasi zinen mintzakide programan?

Nire bigarren urtea da hau.

2 Zergatik hasi zinen? Ba al zenekien euskara aurretik?

Ni AEK-n bost urtez egon nintzen eta joan den urtean patxadaz hartzea erabaki nuen. Bide batez, ni eta beste pertsona baten artean mintzakide programa Lakuntzan antolatzea pentsatu genuen. Horrela sortu zen mintzakide taldea Lakuntzan.

3 AEK-n ez dagoen jendea programara apuntatu daiteke?

Jakina. Euskara praktikatzeko interesatuta dagoen edozein ongi etorria da Mintzakiden. Nahi duenak 600 482 224-ra hots egin edo sakana_mintza@ae.k.eus e-postara idatzi dezake izena emateko. Ez da ezer ordaindu behar.

4 Zenbatero biltzen zarete eta zenbat zarete?

Joan den urtean jubilatuta elkarrekin biltzen ginen astean behin. Baina orain itxita dagoenez, Tximonena tabernan elkartzen gara. Hori bai, beti pintxo eta pote baten konpainian. Aurten 13 pertsona inguru hasi ginen taldean, baina neurri berriak errespetatuz, aste hauetan ez gara elkartu.

5 Konfinamendu garaian harremanetan jarraitu zenuten?

Whatsapp talde bat dugu eta bertatik hitz egiten genuen.

6 Kontatzeko moduko anekdotaren bat ba al duzu?

Bada, egia esan, bai. Mintzakide taldean nagoenetik, lehen gazte-

leraz hitz egiten nuen jendearekin eta orain taldekoak direnekin beti euskaraz hitz egiten dut.

7 Zure eguneroko bizitzan euskaraz gehiago egiten duzu?

Bai, AEK-n hasi nintzenetik gehiago hitz egiten dut. Lehen ez nintzen ausartzen, baina gaur egun nire seme-alabekin eta bilobekin euskaraz hitz egiten dut. Bilobei amona ikasten ari dela esaten diet.

8 Nola ikusten duzu euskararen egoera Lakuntzan?

Niri pena ematen dit. Erdara asko entzuten da eta, gainera, euskaraz dakitenek gutxi hitz egiten dute.

9 Eta euskalkiaren egoerak, bizirik dirau ezta?

Nire taldean gehienek Lakuntzako euskalkian hitz egiten dute. Batzuetan niretzat ulertezina izan daiteke baina hitz asko ikasi ditut eta oso pozik nago.

10 Euskaraldian parte hartuko duzu?

Aurrekoan parte hartu nuen eta aurten ere. Ahobizi gisa aurkeztu nintzen lehenengoan eta horrela izango da oraingo honetan ere. Oso ausarta naiz, kar, kar, kar.

11 Animatuko al zenuke jendea mintzakide programan parte hartzera? Eta Euskaraldian?

Noski. Niretako oso garrantzitsua da, eta gainera oso polita da Lakuntzan euskara gehiago entzutea. Baina Euskaraldia betirako izatea gustatuko litzaidake. Nik, gaur egun, dendetan euskaraz egiten dut eta egia esan jendea berdina egitera animatzen dut, euskara ez dadila etxeetan geratu.



Buletina prest duzu?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



DISEINU GRAFIKOA
WEB DISEINUA
KOMUNIKAZIOA

619 821 436
 info@gkomunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altsasu